

opera ♦ IL BARBIERE DI SIVIGLIA

Bizargin bi bider ona

Opera: Il Barbiere di Siviglia. **Egilea:** Gioacchino Rossini. **Kantariak:** Carlos Alvarez, Juan Diego Florez, Cristina Sogmaister, Enzo Dara, Paata Burchuladze, Maria Mendizabal, Fernando Latorre eta Pablo Pascual. **Musika zuzendaria:** Yves Abel. **Eszena zuzendaria:** Jose Luis Castro. **Ekizleia:** Sevillako Maestranza antzokia. **Orkestra:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. **Abesbatza:** Bilboko Opera Abesbatza. **Zuzendaria:** Boris Dujin. **Tokia:** Bilboko Euskalduna Jauregia. **Data:** Abenduaren 4a. **Ikus-entzule kopurua:** Areto betea, 2.200 lagun.

MAILA handiko oreka lortua izan da azkenean Bilboko Euskalduna jauregian, Sevillako Maestranza eta Opera Lsgunen Bilboko Elkartearen (OLBE) lankidetzatik eskainia izan zaiguna.

Zaila izango litzateke hone-lako bertsio bikaina beste batean ikustea: bai talde eszenikotik, eta batez ere maila musikalean erreferentziazko gailurra burutu baitute. Bakoitzari berea.

Jose Luis Castrok eta bere taldeak girotze klasiko egokia gauzatu zuen Rossiniren opera bufoa biribiltzeko. Hasierako diaporamatik Espainiako hegoaldeko berotasuna isaltzea lortu zuten, hango argitasuna eta landare motak argiztatze punttu landuekin. Lortuenak, gure ustez, barroko estiloan oinarritutako dekoratuak ziren, jauregiko teknologiarik esker segundoetan eszena batetik bestera aldatu izan zirenak. Bertan, hiritar handiki baten etxeatarikoa, barne-gelak eta patioa azaldu zitzaizkigun, barroko osagai biluziak aszetiko samar, apaindurarik gabe, ia atrezzo barik. Aipatu behar ditugu, kanpoaldeaz gain, Rossinaren gela, bi okulorekin prestatua, eta aszetismoarekin kontrajartzeko musika-estudioaren oparotasun dotorea: barroko-klasikoaren koadroz horniturik kolore eta altzarietan go-



MONIKA DEL VALLE

Operako kantariak eta zuzendariak eta OLBeko buruak.

rizka konbinatuak. Ondo aprobetxatu zuten, halaber, esparru eszeniko zabala mugimendu koraletan zein bakanetan, garaiko eta maila sozialeroko arropa aproposak luzitzeko.

Carlos Alvarez, bikain

Operaren azalekoa ona izan bada, eduki sonoroa hobea izan da. Yves Abel maisu gazteak, *crescendo* batzuetako denborapasa batzuk salbu, ederki zuzendu zituen bai Euskadiko Orkestra Sinfonikoko (EOS) musikariak —harrigarri jotze hutsetan zein akonpainamenduetan—, bai eta abeslari taldea zein bakar-lariak ere. Bikain Carlos Alvarez baritonoa, Figaroren rolean: ahots zabal eta tinbre atseginet, bai errezitatioetan zein aria edo kontzertantetan; indarra, esaldikatze eta ahoskera garbia, legato onak egiteko fiatoa, gustua eta komikotasuna...

Pareko maila eta aurkikuntza izan da guretzako Juan Diego Florez peruar tenore gaztea. Almaviva kontearen rolean ahots ederra azaldu zuen erdikoetan: errezitatioetan paregabea, gurguiluetan maisu, agudoetan nahiko tinbre morbidoa, guztiz egokia

noble maiteminduentzat. Cristina Sogmaister mezoak ziurtasuna adierazi zuen Rossinaren rolean. Erregistro erdiko ahotsarekin, behar den *vibratoa*, koloraturak eta errezitatioak oso ondo burutu zituen. Paata Burchuladze baxuak Don Basilio barregarri eta espresionista eszenaratu zuen, bolumen handiko eta erregistro luzeko ahots bote-retsuaekin, ahoskera garbia erabili zuen *La calunnia* ize-neko arian, oso ondo gainontzeko abestaldietan. Enzo Dara, Don Bartolo baxuaren rolean, bikain antzezmodu komikoetan, oso ondo arineko zatietan zein adierazkorretan, sakondu zuen barregarritasuna. Etxeko errenteriarra, Maria Mendizabal sopranoa, Bertaren rolean, publikoaren gustukoa izan zen. Bere aria laburrean bihurritasuna, musikaltasuna eta ofizioa azaldu zituen ahots egokiarekin, eta oso ondo taldeko lanarekin. Fernando Latorre eta Pablo Pascualek ondo bete zuten euren lana. Bilboko Opera Abesbatzak ondo abestu zuen eta eta ondo mugitu zen.

Publikoak txalo zaparrada etengabea eskaini zuen ahaztu ezineko opera gauean.

✍️ **Jesus Mari Begoña**

zinema ♦ THE WORLD IS NOT ENOUGH

Bond, James Bond Euskal Herriratu zenekoa...

Filma: El mundo nunca es suficiente. **Jatorrizko izenburua:** The World Is Not Enough. Estatu Batuak, 1999. **Zuzendaria:** Michael Apted. **Gidoigileak:** Neal Purvis, Robert Wade, Bruce Fiersten. **Argazkia:** Adrian Biddle. **Musika:** David Arnold. **Aktoreak:** Pierce Brosnan, Robert Carlyle, Judi Dench, Sophie Marceau. **Iraupena:** 130 minutu.

BILBON gaude pelikularen lehendabiziko minutuan. Guggenheimen parean. Bilbon gaude eta gaiztoak geldiarazi nahi duen polizia Ertzaintza da, arranopola.

Bilbon gaude, baina Nafarroako Bardeetara joango gara Batasun Sobietar ohi horren errepublika batean gaudelakoan... Bardeetan gaude. Eta gero Cuencan. Eta gero Pirinioetan. Eta gero Londresen, jakina asko. Bond, James Bond, paseoan ibili da gurean. Eta gu, kontent. Ez ertzainak agertzen direlako. Ez pantailan ikusten diren lehendabiziko kotxeek Bilboko matrikula dutelako. Ez Puppy hor dagoelako titaniozko bere txabولاتxoaren aurrean. Ez. Gu kontent Bond, James Bond, sasoi ederrean dagoelako. Bai Bond bera, bai pelikula, bai bere kontra, bere alde diren emakume fin haiek. Eta Robert Carlylek ederki eta gizalegez antzezten duen gaiztoa.

Dena primeran, ahal baduzue jatorrizko bertsioan entzun beharko zenuketen zeluloide puska harro eta disdiragarri honetan, garaietara egokitzen ondo baino hobeto ikasi duen film

sail honetako azken harribitxian.

Bilbon izan gara baina aurki ahaztuko gara Abando-Ibarran gertaturiko menturaz. 130 minutu horietan segundu bakar bat ez dago akziorik gabe, zirrararik gabe, sorpresarik gabe. Egia Bondek proposatuko dizkigun jokoak aspaldi ezagutzen ditugula baina ez dio inporta. Etengabe harrapatuko gaitu ustekabea. Edo etengabe esango digu oraindik bizirik dela eta baduela zereginik mundu honetan, datorren mende hartan.

Arerioak gero eta finagoak

Oraindik ere bere arerioak gero eta finagoak dira. Bala bat buruan duelarik, ez minik, ez desiorik, ez beldurrik soma ez dezakeen Renard

hori pertsonaia izugarria da, sofrikario ikaragarrian dauden horien edertasuna duena. Edertasun eta dotorezia.

Bai, Bardeetan izan gara baina igoal dio. Indar nuklearrean lizentziaturik diren neska gerlariekin eta gaizto-kerietan parekorik ez duten

printzesekin gabiltza gu maiteminetan. Baita titaniozko kotxe horiekin ere. Eta lantalde tekniko miresgarri batek sorturiko hainbat eta hainbat eskenarekin. Bai, Bond Bilbon izan da. Eta gu, kontent mundua ez baita nahikoa jada legenda den 007 horrentzat.

✍️ **Begoña del Teso**



James Bond